

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. NMFak GEHIAGO NAHI DU...
2. ADITUEN BATZORDEAREN TXOSTENAK PENTSIOAK MURRIZTEA PROPOSATZEN DU
3. UZTAILAREN 1EAN SARTUKO DA INDARREAN SENDAGAIEN BERRORDAINKETA EAEn
4. NAFARROAKO ENPLEGU MAHAIAREN OPORTUNISMO POLITIKOA
5. PROPOSAMENA: BIDEZKO FISKALITATE BATEN ALDE

1. NMFak GEHIAGO NAHI DU...

Nazioarteko Moneta funtsak Rajoyren gobernuari ondorengo gomendioak luzatu dizkio:

- Iraizpen objektiboa eta barne malgutasuna errazten dituen lan erreforma berria.
- Soldaten igoera mugatu: kotizazioak jaitsi eta zerga ez zuzenekin orekatu, BEZa eta zerga bereziekin adibidez.
- Pentsioei dagokionez, adituen txostenak ezarritako gomendioak txalotu egiten ditu.
- Konpetentzia hobetzeko neurriak ezarri.
- Kreditua indartu.
- Sistema finantzarioa hobetu eta aktibo toxikoak moteldu.
- Erreskatea ez baztertu
- Administrazio publikoan gastu maila ikuskatu.
- Erreforma fiskalarekin jarraitu.

Aseezinak dira!

2. ADITUEN BATZORDEAREN TXOSTENAK PENSIOAK MURRIZTEA PROPOSATZEN DU

Ekainaren 7an Rajoyk izendatutako adituen batzordeak, CCOOek, UGTek, CEOEk eta Zapateroren gobernuak, 2011ko pentsioen erreforman ezarritako "iraunkortasun faktorea"ren edukia zehaztu zuen.

Gobernuak izendaturiko 12 pertsonetatik bakarrak ere (haietako bat CCOOko Azterketa Bulegoko arduraduna izanik) ez zuen aurretiaz zalantzan jarri azken hamarkadetan onarturiko etengabeko erreformen dinamika, pentsioen murrizketa handia ekarri duena. Gainera, 12 kideetatik 8k finantza edo aseguru erakundeentzat lan egiten dute, edota zuzenean pentsio-funts pribatuentzat. Begibistakoa zen,

beraz, Batzordea pentsioak murrizteko gobernuaren jarrerari estaldura "zientifikoa" emateko saiakera zela.

Iraunkortasun faktorearen funtsa besteak beste, pentsioa eta bizi itxaropenaren bat egitea dela kontutan izanda, Belaunaldi arteko Zuzentasun Faktorea (FEI) 2013an pentsio bat jasotzen hasiko den pertsona batek, guztira, hil arte, eta beranduago erretiratuko den beste pertsona batek bizitza osoan kobratuko duten kopuruak berdina izatea da asmoa. Hau da, sisteman sartuko den pentsiodun batek jasoko duen esperotako zenbateko guztia, sisteman beranduago sartuko den beste pertsona batenaren baliokidea izatea. Beraz, 2020an erretiratuko zen pertsona batek 2014an erretiratuko zen beste batek baino bizi itxaropen altuago izango luke, eta beraz, Adituen Batzordeak, 2020an kobratu beharreko pentsioa 2014koarekiko murriztea proposatzen du, zehazki, %4,12 (bizi itxaropen proiektzioa 2012ko INEko azken bizi itxaropen datuen arabera kalkulatu da).

Bestalde, pentsioak KPlaren arabera igotzea alde batera uztea proposatzen da. 2011 eta 2012an bai Zapatero zein Rajoyrekin ere pentsioak eguneratu ez baziren ere, orain batzordeak formula matematiko bat dela medio, Urteko Errebaluazio Faktorea (FRA) proposatzen du, aldagai hauen arabera kalkulatu dena: sarreraren igoera, pentsio kopurua, ordezkapen efektua (urtero sisteman sartzen eta ateratzen diren pentsiodunen zenbatekoak ezberdinak izateagatik), eta pentsio sistemaren sarrera eta gastuen diferentzia (modulazio eta ñabardura zehatzekin). Horrela, pentsio bat kobratzen dutenen eros ahalmenaren galera ziurtatuz.

ELA ez dator bat ez txostena egiteko moduarekin, ez edukiarekin:

- Ez da harrizkeoa txostena bidali eta gomendioak ematen dituztenen arteko

bat-etortze ideologikoa, hots, pentsioen sistema publikoa desegin eta finantza-erakundeen negozioa (pentsio-plan pribatuak medio) hedatu nahi berberak izatea.

- Pentsioen inguruko debatea ez da kontu tekniko bat, politikoa baizik. Mamia aberastasunaren banaketan dago.
- Pentsioak soilik kotizazio sozialekin ordaindu daitezkeela esatea gezurra da, behar bestelako aukerak egon badaude.
- Elkarrizketa sozialak babesa eman die bai aurretik egin diren pentsioen erreformei zein oraingoan Adituen Batzordearen eginkizunari. Elkarrizketa sozialaren balioa aldarrikatzen jarraitzea ez da inondik ere logikoa, eskubide laboral eta sozialen ikuspegitik.
- Bide bakarra eta etengabekoa murrizketak direla ulertzen duen proposamenak, etorkizunean neurriak haratago joan daitezkeela pentsatzera eramaten gaitu.

ELAk pentsioei buruzko legeak Euskal Herrian erabakitzea exijitzen du.

3. UZTAILAREN 1EAN SARTUKO DA INDARREAN SENDAGAIEN BERRORDAINKETA EAEn

Botikak berrordaindu beharraren ondorioz oro har %40 jartzen zutenek %50 ordainduko dute, eta pentsiodunek %10, errenta mailaren arabera ezarritako tope batekin: hiru kopuru ezarri dira, hileko 8,14 € (urteko diru-sarrerak 18.000 € bitartekoak direnean), 18,32 € (18.000 eta 100.000 € bitarteko sarrerekin) eta 61,08 € (100.000 eurotik gorak errentetan). Hots, sendagaiak batez beste %25 garestituko dira.

Urkulluren gobernuak horrela Rajoyren 2012ko apirilko Errege-Dekretua betearaziko du. Herritar guztiei kalte egingo dien beste murrizketa bat, EAeko herritarren bizi-kalitateari eta osasunari

eragingo diona, batik bat errentarik urrienak dituzten pertsoneri eta gaixo kronikoei.

Neurri honek agerian uzten ditu Eusko Jaurlaritzaren lehentasunak: Rajoyren gobernuak hartutako erabakiei inolako zalantzarik gabe men egin eta betearaztea, horrela herritarren osasunari kalte eginagatik ere. Hain zuzen, gogoratu beharra dago espainiar Gobernuak erabaki hori hartu zuenean EAJ oposizioan zegoela, eta Patxi Lopezi pase forala erabil zezala exijitu ziola; aldarrikapen hau orain erabat ahaztuta geratu da.

Diotenez, 16 eta 20 milioi euro bitartean bilduko dira guztiok jarriko dugun diru honi esker; haatik, jakina da badirela baliabideak lortzeko diru-iturri justuago eta solidarioagoak. Argi dago Urkulluren Jaurlaritzaren gizarte-ereduan aberastasunaren banaketak ez duela tokirik.

4. NAFARROAKO ENPLEGU MAHAIAREN OPORTUNISMO POLITIKOA

Enpleguaren egoera oso larria da Nafarroan. Enplegu Zerbitzu Publikotan izena emandako pertsona kopurua 53.185ekoa izan da maiatzean, iaz baino 3.636 gehiago, eta 2008an krisia hasi zenetik bikoitza baino gehiago hazi da (urte hartako abuztuan 24.458 pertsona zeuden langabezian izena emanda).

Egoera hau ez da soilik krisiaren eragina, Nafarroan erabakitzen diren politiken ondorio ere bada. Honen erakusle da Europar Batasunean ere ematen ari den krisiak ez duela hemen adinako ondorio latzarik. 27-EBean langabetu kopurua %2 igo den bitartean, Nafarroan %7,3 igo da. Era berean, BAIren araberrako langabezia tasa %19,1ekoa da Nafarroan, eta %10,9koa 27-EBean.

Beraz enpleguaren egoera Nafarroan aurrera eramaten diren politiken eta ekimenen ondorio ere badela argi dago. Hartzen diren erabakiak berez oso latza den egoera bat okertu besterik ez dute egiten. Eta hau ikusirik, politika hauek aldatu beharrean, indar gehiagorekin ezartzen segitzen da.

Baina enplegu politikak Nafarroan ez dira soilik Barcinaren Gobernuaren erantzukizuna. Hauetan modu aktiboan parte hartzen dute ere PSNk eta elkarrizketa soziala deritzonak (patronala, UGT eta CCOO). Eta baita ere enplegu politika publikoak kudeatzeko sortu den erakunde eta instituzio sareak.

Elkarrizketa soziala beti egon izan da pribatizazioari lotua eta zenbait baliabide publikoren kudeaketa modu eskusiboan jasotzeari lotua. Denbora asko da Nafarroan eredu hau martxan dagoela. Formakuntza profesionala, lan osasuna, inmigrazio politikak, jende gaztearekin harremanak edota babesturiko etxebizitzaren kasuan gertatzen den bezala.

Elkarrizketa sozialak Nafarroan emandako fruituak besteak beste hauek izan dira: Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kudeaketa, non patronalak, UGTk eta CCOOek erabakitzen dituzte enplegu politika aktiboek dagozkien diru-laguntzak, eta bereiek dira ondoren diru-laguntza hoi onuradunak. Moderna Plana, non pribatizazioa eta baliabide publikoekin negozioa sustatzen den. Enplegu Planak, non azken urteetan 1.500 milioi euro baino gehiago bideratu diren, eta 2013rako beste 42,5 gehigo bideratu behar diren, nahiz eta ezagunak diren hauen emaitza penagarriak. Edo Navarra 2012 Plana, AHT eta Navarra Arena bezalako obra erraldien bidez krisiaren eragina xamurtzeko egin zen plana.

Testuinguru honetan sortu zen Nafarroako Parlamentuko Enplegu Mahaia, PSNren ekimenez. Parlamentuan presentzia duten partidu guztiek eta Nafarroako sindikatu nagusi guztiez eta patronalaz osatua.

Mahai hau lanaren egoera hobetzeko funtzionatzen ez duten enplegu politika eta elkarrizketa soziala zuzitzeko sortu da. Oportunismo politiko kontu hutsa da.

Mahai honetatik ateratzen den edozein ekimenez edo proposamenez ez du inolako aurrekonturik izanen aurrera eraman ahal izateko, Barcinaren Gobernuak argi utzi duenez. Beste aldetik elkarrizketa soziala eta kontzertazio politika berberekin jarraitzeko asmo irmoa dagoen bitartean.

Begi bistakoa da Nafarroan enpleguari dagokionez aldaketaren bat emateko, beharrezkoa dela orain arte egin diren enplegu politikak aldatzea. Eta Mahai honek, eta honen sortzaileak, ez dute halako helbururik, ez askoz gutxiagorik ere.

Gainera ezin da ahaztu Nafarroako Gobernuak enpleguaren egoeran duen ardura. Ez da sinesgarria enpleguarekin Barcinaren Gobernuak azaltzen duen kezka, bera denean Administrazio Publikoan ematen ari den lan suntsiketa ikaragarriaren arduraduna.

Hau horrela, eta egoera aldatzeko inolako asmorik gabe, argi geratzen den bezala, Enplegu Mahaia propaganda hutsa da.

ELAk ondorengo premisetan oinarritzen den enplegu politika berria defendatzen du: Parlamentuak berreskuratu dezala enpleguaren gaineko eskumena; murrizketa gehiagorik ez; egiturazko aldaketak egitea, 35 orduak bezala edo sektore publikoa garatzea bezala; enplegu politikentzako baliabideak jarri aldaketa fiskal baten bidez, eta aurrekontu politika aldatu enplegua AHT bezalako alferrikako obra izugarrien aurretik jartzeko.

Ezin da inolaz ere onartu enplegua, honek duen garrantziarekin, Parlamentutik kanpo CEN, UGT eta CCOO erakundeek kudeatua izatea, inongo gardentasunik eta Parlamentuaren kontrolrik gabe. Hau egiteko borondate faltak Enplegu Mahaiaren porrota suposatzen du.

5. PROPOSAMENA: BIDEZKO FISKALITATE BATEN ALDE

Alderdi politikoak fiskalitateaz eztabaidatzen ari dira momentu honetan. ELAk mesedegarria ikusten du zerga arloan dituen proposamenak gogoraraztea, bidezkoa eta zuzena den eredu fiskal baterantz aurrerapausoak ematen balio dezaketenaren helburuarekin. Defizit handia dago Hego Euskal Herrian zerga bidezko diru-bilketari dagokionez, eta baita injustizia fiskal toleraezina ere. Sindikatuaren proposamenek hauek zuzentzera zuzenduta daude.

Iruzur fiskalaren aurkako borroka

Iruzur fiskala, nagusiki, soldatari lotuta ez dauden errentetan gertatzen da, eta HEHko zerga-sistemaren gaitz nagusia da. Horrenbestez, honelako neurriak hartu behar dira:

- Zerga-itzurpena ezabatu behar da; hau da, zerga gutxiago ordaintzea zilegi egiten duten lege-mekanismoak ezabatu behar dira. Horrelako mekanismoak, bereziki, aberats handiek eta enpresek erabiltzen dituzte, eta hauek horrela edozein lan-errentak baino zerga gutxiago ordaintzen dute. Egungo zerga-sistema errotik bidegabea da, eta ezin da onartu legeak horrelako zerga-sistema bati babes ematea.
- Gaur egun zergak ordaintzea saihesteko dauden molde berrien aurka borrokatu behar da. Izan ere, errealitate berri baten ondorio dira, eta jarduketa molde berriak eta baliabide berriak behar dira, horren aurka borrokatzeko. Esate baterako, hortxe ditugu hainbat estatutan diharduten multinazionalak; azkenean, ahalik eta gutxiena non ordain dezaketen, hantxe ordaintzen dute.
- Soldatari lotuta ez dauden errenta guztiak gehenez ere 5 urteko epean ikuskatzea:

PFEZan, Sozietateen gaineko Zergan eta BEZean. Horrek esan nahi du urteko ikuskapenek % 1,2tik % 20ra igo beharko dutela, kolektibo horri dagokionez.

- Giza baliabideak nabarmen handitzea, ikuskapen gehiago egiteko behar diren bitartekoekin bat. Delitu ekonomikoak ikertzeko unitateak bultzatzea.
- PFEZaren zenbatespen objektiboaren araubidearen moduluak ezabatzea. Sistema horren bidez, izan ere, zilegi da zerga gutxiago ordaintzea PFEZaren tarifa aplikatzen ordaindu beharko liratekeenak baino.
- Aldian behin, iruzur fiskalari buruzko azterlanak egitea.

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala jaitsi egin da azken urteetan, eta beraz, handitu egin da zerga horretan 27-EBrekiko presio-defizita. Horrenbestez, beharrezkoa da:

- Sozietateen gaineko Zergan %35eko tasa nominal bakarria ezartzea.
- Kenkari fiskalak nabarmen murriztea; izan ere, gaur egungo kenkari fiskalen eraginez, tasa efektiboa nominalaren erdia baizik ez da.

Ondarearen gaineko Zerga

Ondarearen gaineko Zergak dirua biltzeko egiazko bitartekoa izan behar du. Izan ere, salbuetsitako minimoak altuak dira, eta tasa apalak aplikatzen dira; horren ondorioz, oso diru gutxi biltzen da. Gogoratu behar da zerga hau ezabatu aurreko azken urtean, 2007an, 180 milioi euroko bilketa eragin zuela. Orain, aldiz, 2012an berriro indarrean jarri denean, 115,5 milioi bakarrik bildu dira.

PFEZa

Zergaren egungo egitura zerga-sistema bidegabe baten oinarri da. Horrenbestez,

- PFEZaren eskalan galdutako progresibotasuna berrekuratu behar da. Orain arte egindakoaren kontrakoa egin behar da; hau da, errentarik apalenei tasa aplikagarria jaitsi behar zaie eta errentarik altuenena igo, oso urrun baitago duela urte batzuetako %56tik.
- Kapitalaren errentek duten tratu pribilegiatua ezabatu behar da, Bizkaian eta Araban %22ko tasa maximoaren arabera ordaintzen baitute, eta Gipuzkoan, %23koaren arabera. PFEZaren zerga-oinarriak bakarria izan behar du, diru-sarrera guztiek tratamendu bera izan dezaten. Kapital errentei errekarua ezarri beharko litzaieke.

Gizarteak parte hartzeko mekanismoa

- Ogasunek ez dute inola ere zerga kontuei buruzko nahikoa informazio ematen, fiskaltasuna haien eskumen nagusia izanik ere. Zerga guztiak zehatz-mehatz ordaintzen dituztenek, langileriak oro har, zer marko dagoen ezagutu behar dute, gardentasuna funtsezkoa baita fiskaltasunean. ELAk, beraz, eskatzen du aldian behin informazio nabarmen eta zehatza eman dadila, urtealdien artean konparatzeko modukoa, zerga bakoitzari eta ikuskaritzari buruzko kudeaketan dauden parametro garrantzitsuenen inguruan.

- “Ogasuna denok bagara”, denok ere erabaki behar dugu. Prozesu parte-hartzaile bat egin beharra dago, zerga-politika definitze aldera, eta bitarteko instituzionalizatuak izan behar dira eskura, sindikatuek parte har dezaten. Zerga-erreformak egiterakoan, gizarteari kontsulta egin behar zaio, erreferenduma erabiliz.

Erabateko eskumenak zerga arloan

Gaur egun, zerga batzuk Espainiar Estatuan erabaki eta Hego Euskal Herrian kudeatzen dira, eta beste batzuk Madrilan erabaki eta bertan kudeatzen dira. ELAk zerga guztien gaineko legeak Hego Euskal Herrian egiteko eta kudeatzeko eskubidea aldarrikatzen du.

Zergen arloko legeak Eusko Legebiltzarrak erabakitzea

Maiatzaren 30eko 3/89 Zergapideen Elkar-egokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunen Legearen, bai Estatuaren, bai Lurralde Historikoen Legearen eta Ekonomia Itunaren beraren interpretazioa ere argiak dira: lege maila duten arauak egiteko ahalmena bakar-bakarrik Legebiltzarrari dagokio, Batzar Nagusiek onartzen dutena Forua Arauak baitira.

Dena den, erreforma fiskalak Zerga Koordinaziorako Organoan hitzartu eta proposatzen dira, eta erakunde horretan ordezkari parekidea dute Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek. ELAk egoki ikusten du Eusko Legebiltzarrak zerga arloari buruzko legeak egitea.